

IKASGAIAREN IZENA: “ROBOTIKA ETA 3D INPRESIOA”

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: TEKNOLOGIA
ZERTARAKO	<p>Hautazko hau 3. DBHko ikasleei zuzenduta dago.</p> <p>Bi atal ezberdin ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ROBOTIKA atalean, Moway eta MakeBlock plataformetan oinarritutako robotak muntatu eta programatuko dira. Robot horiek aukera ezberdinak ematen dituzte sentso eta eragile ezberdinak erabiliz. Lan ezberdinak egiteko gai izango diren sistemak garatuko dira, eta robot horiek erabiliz proiektuak eginaz bukatuko dute. - 3D INPRESORAN 3D modeloak inprimatuko dira. Horretarako SketchUp SW-aren bidez diseinatzen ikasiko da, baita bestelako SW-en bidez beraien diseinua 3D-ko inpresorarentzat behar bezala prestatzen ere. <p>Horrez gain, beste iturri batzuetatik hartutako irudiak ere egokitu eta prestatuko dira 3D inpresoretan inprimatzeko.</p>
ZER IKASIKO DUZU	<ul style="list-style-type: none"> - Robotekin lan egiten. - Bloke bidez programatzen. - Automatizazio sistemen blokeak identifikatzen eta aukeratzen. - 3D-n diseinatzen. - 3D-n inprimatzeko behar diren SW-ak erabiltzen. - 3D inpresorak erabiltzen, egokitzen, prestatzen.
METODOLOGIA	<p>Robotikan praktika txikiekin hasi eta proiektuak egiten bukatuko dute ikasleek.</p> <p>3D inpresoraren atalean diseinua inpresorara eramateko erabili behar diren SW-ak erabiliz praktikak egingo dira, eta diseinuak inprimatu, emaitzak aztertuz.</p>
EBALUAZIOA	<p>Praktika eta proiektuak baloratuko dira. Baita ekintzailtza, sormena eta jarrera ere.</p>
OHARRAK	<p>Ikasleak robotikaren mundura hurbilduko dira, ez robotak erabiliz soilik, baita helburu jakin bat lortzeko programatuz ere.</p> <p>Sormena eta ekintzailtza asko landu eta garatu ahal izango da hautazko honen bi ataletan: ikasleak “nahi duena” (bere sormenak agintzen duena) egin ahal izango du robotak programatuz, edota 3D inpresoraren bidez.</p>